


zure aurpegi
in your face

the balde




0€

abuztua | irekia
august | september

53

53



the balde

antsosain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

www.thebalde.net

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:

manukleart

+34 946765108 / +34 633438611

bizkaia@thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com . komunikazioa eragin sli

editore / editor: iñigo martinez.

zuzendaria / director: koldo almandoz.

diseinu burua / head of design: martin etxauri.

zuzendari komertziala / comercial director

& publicitatea / publicity: iñigo martinez.

diseinua / design: martin etxauri, txuma vazquez, iker bereziartua, eneko etxeandia.

itzulpenak / translations: smiley, 11 itzulpen.

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit,

arrate rodríguez, agurtzane ortiz, nerea lurgain, borja izagirre, mg.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, fram rezende,

juancar hernández, edorta subjana, robert huber.

komikia / comic: txuma.eu

harpidetza orria / subscription page: ivonne gracia. diseinu grafikoa usandizaga institutua.

azaleko irudia / cover image: robert huber.

aurkibidea / summary: odlok

inprimategia / printed at: espacegrafic.

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidetan zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Lan berrizaille, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net

getxophoto


Iritsi da, tolestuz gainezka aurten, Getxophoto. Bizkaiko kostaldeko hiria irudiz eta irudimenez janzten duen argazkilaritza jaialdi honetan, urtero lez egitasmo erberdin eta erakusketa anitzak izango dira ikusgai. Aurten, eta ekimen honek duen izpiritu herrikoi eta kaletarrari jarraiki, the balde "argaz(ni)kiak" proiektua aurkezten du Getxophoton.

www.getxophoto.com

getxophoto

This year's Getxophoto's arrived on awnings. In this photography festival, which dresses the town on the coast of Bizkaia with images and imagination, you'll be able to see many projects and exhibitions, like every year. This year, in line with the initiative's popular, street spirit, The balde is presenting its "argaz(ni)kiak" project at Getxophoto.

www.getxophoto.com



don herberten esku pausatua 1975-2010

Erakusketaren inaugurazioan, komisarioak bohemio gisa definitu zuenean, Don Herbert-ek zera esan zuen: "Ni ez naiz bohemioa, burges frakasatua baizik". Esaldi horregatik soilik merezi zuen Koldo Mitxelena Kulturunean eskaini zaion erakusketa. Baina bada beste dozenaka arrazoi. Hain zuzen ere, Herbet, artista ugariaren maisu izan delako Artelekun eman dituen serigrafia eta litografia ikastaroetan.

kmk.gipuzkoakultura.net/

don herbert's slow hand 1975-2010

At the opening of the exhibition, when the commissioner defined him as a bohemian, Don Herbert had this to say: "I'm not a bohemian, I'm a frustrated bourgeois". For this sentence alone, he deserves the exhibition at Koldo Mitxelena Culture Centre. But there are dozens of other reasons too. In fact, Herbert was the teacher of so many artists in printing and litography at Arteleku.

kmk.gipuzkoakultura.net/

the green hornet.

Michel Gondry-ren pelikula berria superheroi film bat da. Gondry-k aspaldian irabazi zuen zine independentearen txapeldun domina eta egun AEBtako zinema industrian bere tokia egin du. Zuzendari frantsesak ez gaitu egun, garai batean bezala txundituta uzten, baina ile kizkurduaren zale izaten jarraitzen dugu.

<http://www.sonypictures.com/movies/thegreenhornet/>

the green hornet.

Michel Gondry's new film is about a super hero. Gondry won the independent cinema makers' medal a long time ago and, nowadays, he has his own place in the US cinema industry. This French director no longer amazes us as he used to, but we're still followers of this curly-haired man.

<http://www.sonypictures.com/movies/thegreenhornet/>



CLICK
& RUN!

Erakustaretoa

PAISAIA IDEIA GISA

proiektuak eta proiektzioak: 1960 - 1980

Ekainak 10. Irailak 25

Agnes Denes
Jan Dibbets
Barry Flanagan
Hamish Fulton
Michel Heizer
Richard Long
Walter De María
Anthony McCall
Ana Mendieta
Dennis Oppenheim
Robert Smithson
Gerry Schum
Chris Wesley

Comisaria: Berta Sichel

GANBARA ARETOA

ESKU PAUSATUA DON HERBERT

Ekainak 30. Irailak 4



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta 9 - 20006 Donostia - San Sebastián
www.gipuzkoakultura.net
tel. 943 112 750/6
Asteartetik larunbata arte: 11:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskarazko Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



viral blog

Publizitate munduan egiten diren kanpaina berritzaile eta bereziak biltzen dituen webgunea. Sareak eskaintzen dituen aukerak geroz eta gehiago baliatzen dituzte publizitate agentziek, gehien bat merkeak eta eraginkorrak izaten direlako eta agentzia buruek, dirua euren 4x4 garestietan gastatzen jarraitu dezaketelako. Webgune honetan, iragarki biral adibide ezberdinak jaso dituzte.


www.viralblog.com

viral blog

This web site brings together innovative and special publicity campaigns. Publicity agencies increasingly use the opportunities offered by the Web, mostly because they are cheap and effective, and in this way the agency bosses can carry on buying their Chelsea tractors. There are many examples of these viral advertisements on this web site.

www.viralblog.com

 **VIRALBLOG**
VIRAL IDEAS | SOCIAL TRENDS




senioritas

Interbentzio urbano honek liluratuta utzi gaitu. hain da simplea, txikia eta eraginkorra. Egun osoa leihoan pegatuta inguruko jendeak zer egiten duen kuskuseatzen pasatzen duten Lisboako emakumeen leiho azpian jarritako karteltxo hauek edonori irribarrea pizten diote. CC Kolektiboak, akzio honekin, udaletxeak, segurtasun enpresen mesederako sortu duen kale bigilantzia kamara sarearen inguruko kritika eta hausnarketa bultzatu nahi izan du.

senioritas

This urban action has amazed us. It's so simple, small and effective. Those posters under the windows of Lisbon women who spend all day gossiping about the people around them are enough to make anybody laugh. Using them, CC collective wants to encourage citizens about the city hall using a closed-camera-circuit, all in benefit of security companies.




SENIORITAS

VIGILÂNCIA
12 HORAS POR DIA

Blind possessed choir boys.



LVV

Literal Video Versions. Sarean sortu den ikusentzunezko genero berria. Musika bideoklip bat hartu eta literalki irudietan gertatzen dena deskribatuaz kantua moldaketa berria egitea. Sarean dozenaka topatu ditugu, horietako batzuk oso oso dibertigarriak.

LVV

Literal Video Versions. A new audiovisual genre has been created on the Web. Take a music video, and, literally, sing descriptions of what happens in them in a new arrangement. You can find dozens of these on the Web and some of them are very, very funny.

KUX-KUX!



lagunekin
euskaraz

interneten
ere bai!

gozatu
euskaraz



mobiletik
euskaraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

TARGET: THE EARTH



o campo.

Joachim Schmid brasildarraren proiektu ederra. Google Earth tresna erabiliaz, Brasilgo bazter guztietan sakabanaturik dauden futbol zelaiak irudiak bildu ditu. Bi gauza ikasi ditugu lan honekin. Lehena, futbolera jolasteko FIFA-k ezartzen dituen neurri eta erregelak ez direla zergatik bete behar. eta bigarrena, O campo izeneko argazki liburua argitaratzeko argazki kamararen beharrik ez dela. Irudimena eta ordenagailuarekin nahikoa da.

<http://www.blurb.com/books/12695698>

o campo.

The Brazilian Joachim Schmid's beautiful project. Using Google Earth, he's brought together pictures of all the football fields all over Brazil. There are two things to be learnt from this piece of work. The first is that you don't have to follow all the FIFA rules and regulations to play football. The second is that no camera was used to publish this book, O campo. Imagination and a computer were enough.

<http://www.blurb.com/books/12695698>



blu

Ez da kale artista eta filmegile honen lana aipatzen dugun lehendabiziko aldia. Baina ezin dugu aukera pasatzen utzi Blu-k lan berri bat kaleratzen duenean. Bere azken grafiti-filmak Big Bang Big Boom du izena eta aho bete horts utzi gaitu beste behin. Hitzak soberan daude...beste behin.

www.blublublu.org

blu

This isn't the first time we've mentioned this street artist and film maker. But we can't miss the chance to say that Blu's brought out a new piece of work. His latest graffiti film's called Big Bang Big Boom and, once more, he's left us open-mouthed. Words are superfluous ... once again.

www.blublublu.org

LEKUONA
ARKITEKTURA

IKIMILIKLIK! Tolosa. Mendia Herria
san esteban 8 31780 Bera 948625403; pilotegi bidea 12, G17b Iqara Donostia 943224848

SUSTRAI BELTZAK

Jon Arretxe

Terrorearen generoa landu du oraingoan Arretxek, hamaika istorio beldurgarri biltzen dituen ipuin liburu honekin.

elkar

www.elkarargialetxea.com

New  **the balde** t-shirts

the balde kamiseta berriek joko handia emango dizute!
buy one before they are gone!

total **15€** -rengatik!

TOTAL MODEL (letra fuchsia/magenta letters)

TOTAL MODEL (letra horiak/yellow letters)

BALDESTORMING MODEL (kamiseta granatea/granet t-shirt)

BALDESTORMING MODEL (kamiseta txuria/white t-shirt)

neska / girl mutila / boy

S M
 M L
 L XL

buy them at **www.thebalde.net**
webgunean erosi itzazu



pasta liburua

Gastronomiaren munduan, beste guztietan bezalaxe, geroz eta zailagoa da argelkeria eta genialitatea bereiztea. Hainbeste proposamen, hainbeste kontzeoptu, hainbeste berrikuntza, hainbeste iraultza... tripako mina ere jartzen zaigu uneoro komunikabide guztietan azaltzen diren sukaldari filosofoekin. Horregatik, modu izugarri ederrean diseinaturiko pasta liburu bat gomendatzen dizuegu. Ez da goi mailako gastronomia izango, baina pasta, merkea, osasuntsua eta aukera anitz eskaintzen dituen janaria da.

<http://www.geometryofpasta.co.uk>

pasta book

In the world of gastronomy, as in many others, it's harder and harder to distinguish stupidity from genius. So many proposals, so many concepts, so many innovations, so many revolutions ... You can even get bellyache from the number of times they tell us about kitchen philosophies on the media. That's why we're recommending this extremely beautiful book about pasta. It may not be the highest cuisine, but pasta is cheap, healthy and offers many different options.

<http://www.geometryofpasta.co.uk>

gardening gerrilla

Behin baino gehiagotan aipatu ditugu lorategi gerrilla ekimen ezberdinak. Gure bihotzeko tolesturaren batean, lorazain izpiritua gordetzen dugulako ziurrenik (bulegoko landare gaixoak izpiritu hori noiz aterako ote den zain badaude ere). Hazi bonben jatorri japoniarraren inguruko artikulua kaleratu genuen aspaldi. Orain bertsio estatubatuarra dakarkigu. Hazi bomba makinak!

<http://thecommonstudio.com/index.php?/project/greenaid/>

gardening gerrilla

We've mentioned gardening guerilla's initiatives more than once. This is probably because we keep a gardener's spirit in a fold of our heart (eventhough we're still waiting to see when that sick office plant is waiting for that spirit to come out). Some time ago we published an article about these Japanese seed bombs. Now the US version has arrived. Seed bomb machines!

<http://thecommonstudio.com/index.php?/project/greenaid/>



PASTA, GREEN, MEX



video a la mexicana

Emetasunari buruzko irudikapen berriak izenpean, Montehermoson gauzatzen ari diren ekimenean, "Video a la mexicana. sexuaz,-ez, maitasunaz eta umoreaz" izeneko erakusketa dago ikusgai irailaren 12ra arte. Maris Bustamante, Débora Carnevali, Monica Castillo, Eugenia Chellet, Paola Esquivel, Sarah Miner, Ale de la Puente eta Pola Weiss artisten proposamenek 3 ardatz dituzte: bideoarte, feminismoa eta Mexico. Koktelaren zaporea zein den jakiteko... badakizu nora jo.

www.montehermoso.net

mexican style video




Described as new illustrations of gentleness, "Mexican style videos, sex, love and humour" can be seen at Montehermoso until the 12th of September. The artists Maris Bustamante, Débora Carnevali, Monica Castillo, Eugenia Chellet, Paola Esquivel, Sarah Miner, Ale de la Puente and Pola Weiss'es proposals are based on three axes: video art, feminism and Mexico. If you want to find out what flavour the cocktail is, you know where to go.

www.montehermoso.net



ezamodioak
lack of love

mutilak, dirua baino ez zuen hizketagai.
he just talked about money.



sabaiko arrakala eta hezetasun orbainek eraikitako zeruari so.
looking at the cracks and damp stains in the man-made sky.

Arrate Rodriguez. (1984) Orereta. Egun Bartzelonan bizi da. Artista eta Ilustratzailea.
Arrate Rodriguez. (1984) Orereta. Currently lives in Barcelona. Artist and illustrator.
www.behance.net/Alice_In_Citta



logelan dago, bakarrik, irribarrez.
alone in the bedroom, laughing.



heriotzaren aurpegia the face of death

maskarah: *arabiarrez, bufoia*

maskus: *latinez, mamua*

Egipziarrek eta Ameriketako zibilizazioek maskarak jartzen zizkieten pertsona garrantzitsuei, hil eta lurperatzen edo erretzen zituztenean. Baina ez da maskara horien balio sinbolikoa edo erligioso guri interesatzen zaiguna, Erdi Arotik aurrera eman zitzairen erabilpen apaingarria baizik. Aristokraziak modan jarri zuen, pertsona bat hil eta berehala, haren aurpegiaren maskara egitea. Nolabait, Erromako enperadoreek etorkizunerako uzten zituzten estatuen antzeko oroigarriak ziren. Hasieran nobleziaren ohitura zena, pertsonaia garaikide garrantzitsuetara ere zabaldu zen: politikoak, idazleak, musikariak, filosofoak... Ohitura horri esker, azken bost mendeetako pertsonaia garrantzitsu askok zer itxura zuten jakiteko aukera dugu egun. XIX. mendean, argazkilaritzaren asmakizunarekin batera, hildakoei eginiko maskaren ohitura bertan behera geratzen hasi zen. Familiek, hildakoa "ad eternum" gordetzeko, argazkiak nahiago zituzten. XX. mendeak aurrera egin ahala, familia gutxi batzuk eta erakunde bereziek eutsi zioten heriotz maskaren ohiturari.

Berriki hildako pertsona baten aurpegiaren maskara egiteko, igeltsua hustutzearen teknika erabili behar da, igeltsuan geratzen den hutsunea argizari likidoarekin betez. Modu horretan, hildakoaren hiru dimentsiotako erretratu fidela lortzen da. Ez zen munduko lanik ederrena, baina iaotasun berezia behar zen historiak eman dituen "bufoi" horietako askoren erretratu mamua ateratzeko. Familia dirudunek estima handian izaten zituzten heriotz maskaren artisauek, haien trebezian oinarritzen zelako hildakoak etorkizunerako utziko zuen irudiaren edertasuna eta nortasuna.


maskarah: *arabic, jester*

maskus: *latin, ghost*

Egyptian and American civilisations placed masks on important people when they died, were buried or were cremated. We, however, are not interested in the religious or symbolic importance these masks had. On the other hand, we are interested in the decorative use of these masks from the Middle Ages on. The aristocracy made it fashionable when they started making death masks of people as soon as they died. They were seemingly souvenir statues used by Roman Emperors to ensure posthumous recognition. What was at first a custom of the nobility soon was in use amongst other important contemporary figures: politicians, writers, musicians, philosophers... This tradition allows us now to see what a lot of extremely important people looked like. The advent of photography in the 19th Century saw a gradual decline in the making of death masks. Families preferred photography to masks in their bid to remember the deceased "ad eternum". As the 20th Century progressed, a few families and organisations maintained the tradition.

To make a mask of a recently deceased person's face, the technique of hollowed plaster is used by filling the spaces in the plaster with liquid wax. In this way, a true three-dimensional portrait of the deceased is obtained. It wasn't the most beautiful job in the world but a special skill was needed to capture the ghosts of the many 'jesters' history has offered us. Wealthy families held the death mask artisans in very high esteem as the representation of their deceased's beauty and character was fully in their hands.





Robespierre




Tomas Moro



Jonathan Swift



Shakespeare



Dante




Beethoven



Newton




Napoleon




Mahler




Goethe



Lincoln



Benjamin Franklin



Maitasun istorio odoltsua da Triangulo de Amor Bizarro taldearena. Lan ilun eta azkarra, hogeita hamar minutura iristen ez dena. Isa-k abesten duenean sensualitatez bustitzen den noise-punk nahasketa kutsagarri eta zikina lortzen dute. "Año santo", "Amigos del género humano" eta "De la monarquía a la criptocracia" dira lan honetako gure apustuak.

The Strange Love Triangle's story is a bloody love story. Dark, fast work, which takes less than thirty minutes. When Isa sings, they make noise-punk which splashes you with sensuality, a contaminating, dirty mix. "Año santo", "Amigos del género humano" and "De la monarquía a la criptocracia" are our recommendations in this work.



Triangulo de Amor Bizarro
"Año santo"
Mushroom Pillow 2010



Dark Night Of The Soul
Autoekoizpena 2009

Industriaren zentzugabetasunaren erakusle garbiena eta itsusiena da hau. Danger Mousek eta berriki bere buruaz beste egin duen Mark Linkousek gidatua, eta David Lynch-en irudiek lagundua. Vic Chesnutt bezalakoek parte hartu zuten, eta, diskoetxeak boikoteatu ostean, autoekoizpen bezala filtratu zen sarean. 2009ko diskoa bada ere, edizio berria argitaratuko dutelako aipatu nahi izan dugu. Inoiz argitaratu den diskorik mingarriena.

This is the clearest and ugliest demonstration of the industry's senselessness. Danger Mouse with the recent suicide Mark Linkhouse's script and accompanied by David Lynch's images. Vic Chestnutt also took part and, having been boycotted by the record company, produced it himself and made it available on the Web. Although it's a 2009 record, we want to announce that a new edition has been published. The most painful record that's ever been released.

Colombiako doinu tradizionalak dantzalekura salto egin du eta Europako eszena cool-ean eragiten ari da. Bilduma hau ezinbestekoa da guzti horren berri izan nahi dutenentzat. Bomba Estéreo, IMS edo Systema Solar dira horren erakusle garbienak eta Chusma Records da eragile nagusia. Duela urte batzuk erritmo balkanikoek zuten lekua bete du Cumbiak.

Colombia's traditional sounds have jumped onto the dance floor and have become influential on the cool European scene. This compilation is indispensable for all those who want to know all about it. Bomba Estéreo, IMS and Systema Solar are the best examples of the genre and Chusma Records is the biggest producer. The place Balkan rhythms had some years ago has been taken by Cumbia.



Askoren artean
Cumbia Bestial
Chusma Records 2010



El Guincho
Piratas de Sudamérica
Young Turks 2010

Askok Noah Lennox-ekin (Animal Collective, Panda Bear) parekatzen dute Pablo Díaz-Reixa. Piratas de Sudamérica proiektuaren lehen bilduma honetan, Hego Ameriketako kantu klasikoek bertsioak datoz, besteak beste, Julieta Venegas-ek lagunduta. Mundu osoko atea ireki zizkion Alegranza diskorako asmatutako estilo indie-tropikalarekin jarraitzen du; hori bai, Karibeko erritmoan.

Many people compare Pablo Díaz-Reixa with Noah Lennox (Animal Collective, Panda Bear). In this first compilation from Piratas de Sudamérica, there are versions of classic South American songs, some of which Julieta Venegas helps with. Everyone opened their doors to him when he released Alegranza with its indie-tropical sounds, which he still uses, along with Caribbean rhythms.

Iraultza musikal erreal baten aurrean gaude. Sharon Jones-ek gogor egin du lan, eta horrek erantzuna izan du, zorionez. Laugarren estudioko disko honetan aurrekoetan erakutsitako sendotasuna eta indarra erakusten duten abestiak datoz. Soul musikaren erregina berriaren aurrean gaudela konfirmatzen du, gainera. Ezin dugu momentu hau besterik gabe pasatzen utzi.

We're up against a real musical revolution. Sharon Jones has worked hard, and that's given her this result, fortunately. The strength and force she'd already shown is here too on her fourth studio release. It also confirms that we're looking at the new queen of soul. We can't just let this moment go by.



Sharon Jones and the Dap-Kings
"I Learned the hard way"
Daptone Records 2010



Crystal Castles
Crystal Castles (II)
Fiction Records / Universal 2010

Elektronikaren eszena astindu zuen Crystal Castles-ek lehen diskoarekin. Punk izaera erakusten zuen lan hartako arima guztiz baztertu gabe, melodiak puztu egin dira lan honetan "Celestica" abestiari esker. Hala ere, "Doe Deer" bezalakoetan izaera makarra mantentzen dute oraindik. 2009ko Sonar jaialdiko arazoz betetako kontzertu bortitza gogoan, Bilboko Kafe Antzokian izango ditugu udazkenean.

Crystal Castles shook up the electronic scene with their first record. Without completely losing the punk spirit they had on that record, they've blown out the melodies on this work thanks to "Celestica". Even so, songs like "Doe Deer" keep their rough style alive. With memories of the violent, problematic concert they gave at Sonar 2009 still fresh, we'll have them at Bilbo Kafe Antzokia this autumn.

Kitsune is made up of Gildas Loaec from France and the Japanese Masaya Kuroki. And what happens when a frenchman and a japanese guy get together? Easy enough that one, they create a brand of clothes. This happened in 2002 when Loaec, who was working for the group Daft Punk, employed Kuroki as an interpreter during the French band's tour of Japan that year.

They opened a shop in Paris while still maintaining their interest in music. Along with opening the shop, they released compilations of bands they liked. The music was dance music and the editions were small and very carefully put together. And then Kitsune became huge. Suddenly, anybody who wanted to be hip and cool had to get their hands on the Maison Kitsune compilations. They increased the size of the editions and the couple's musical selections started reaching an audience all over the world. They became global djs overnight, and today, with the release of their 9th compilation (2010), Kitsune electro-pop is an essential reference to every wannabe discotheque and nightclub. La Roux and Digitalism became famous after appearing on these compilations.

The case of Kitsune is a strange one. Even more so when you see that their music and clothes have so very little to do with each other. They freely accept their choice of music is aimed at 15-30 year-olds whereas their clothes definitely have a more classical touch to them and are aimed at an older target group. We, nevertheless, don't believe in this distinction between age groups. Nowadays, age is of little importance in music, in fashion or in many other fields. In Paris, the followers of Kitsune's music and fashion are known as Nouveau Ravers. 2010 is, without a doubt, Maison Kitsune's year. 2011 will bring "new musicians and fashion designers, come to save the world"... To be cool, by definition, is to be ephemeral.

Kitsune, Gildas Loaec frantziarrak eta Masaya Kuroki japoniarrak osatzen dute. Eta zer egiten dute frantziar batek eta japoniar batek elkartzen direnean? Jantzi marka bat sortu, jakina. 2002an gertatu zen hori, Daft Punk taldearentzat lan egiten zuen Loaec-ek Kuroki kontratatu zuenean itzultzaile gisa. Talde frantziarrak japonian egin zuen biran gertatu zen.

Denda ireki zuten Parisen, baina ez zioten musika zaletasunari bizkarrik eman. Denda irekitzearekin batera, euren gustoko taldeen bildumak kaleratzen hasi ziren; musika dantzagarria egiten zuten, taldeen bildumen edizio txiki eta zainduak. Eta orduan egin zuen eztanda Kitsunek. Bat batean, cool izan eta uhinean egon nahi zuen orok eskuratu behar zituen Maison Kitsune bildumak. Hasierako edizio txikiak kopuruz handitu, eta Paristik mundu osora zabaldu zen bikote honen aukeraketa musikala. DJ globalak bihurtu ziren egun batetik bestera, eta, egun, 9. bilduma (2010) kalean izanik, dantzaleku eta klub moñoño orotan erreferentzia ezinbestekoa bihurtu dira Kitsunek proposatzen dituen elektropop doinuak. La Roux eta Digitalism bilduma honetan azaltzeagatik egin ziren ezagunak.

Kitsunereren kasua bitxia da, are gehiago, proposatzen duten musikak eta jantziek ez dutelako zerikusi handirik batak bestearekin. Euren musika aukera 15-30 inguruko jendearentzat dela onartzen dute, eta jantziak, ordea, ikutu klasikoagoak eta jende nagusiagoarentzat direla. Baina guk ez dugu adin banaketa horietan sinesten. Egun, adinak ez du ia garrantzirik ez musikan, ez modan, ez beste hainbat arlotan. Parisen, Nouveau Ravers izenez dira ezagunak Kitsune moda eta musika konbinazioaren jarraitzaileak. 2010a, ezbairik gabe, Maison Kitsune-rena da. 2011k ekarriko du "mundua salbatzera datozen musikari eta moda diseinatzaile berririk"... Cool izatea, definizioz, efimeroa izatea baita.

<http://www.maisonkitsune.fr/>

kitsune: moda eta musika / fashion and music



mariñelaren semeak.

Tielman Brothers-en istorioa Surabayan hasten da. 1945. urte inguruan, Herman Tielman, Royal Dutch Indonesian Army-ko kapitaina, Japoniarren kontzentrazio eremu batetan preso egon ostean Surabaya herrian zuen etxera itzuli eta bertan, bere musika zaletasuna, bere 5 seme alabei (Reggy, Ponthon, Andy, Loulou eta Jane) kontagiatzen hasi zenean. Indonesiako folk kantu eta dantzak ikasi eta antzetzten zituzten aitak etxean antolatzen zituen afarietan. Herman-ek ordea, Indonesiako folk gozoaz gain, doinu berri eta alaiak ere maite zituen. Mariñela izaki, portuetako merkantzien artean bazekien mugitzen eta berehala lortu zituen itsasoaren beste ertzetik zetozen instrumentuak. Haur bakoitzari instrumentu bat eman zion: Ponthon semeari kontrabaxua, Reggy-ri banjoa, Loulou txikiari bateria, Andy-ri kitarra. Janek, neska bakarrak, bere ahots ederrarekin konformatu behar izan zuen. Berehala hasi ziren aitaren lagunuen festetan ere jotzen. Eta denbora gutxira beste hirietara ateratzen hasi ziren. The Timor Rhythn Brothers bezala jo zuten uharteko hainbat tokietan Herbeheretatik etorritako De Wanna's, The Ramblers eta The Skymasters taldeekin.

1949. urteko abenduaren 29an, Indonesiak independentzia lortu zuen. Tielman familiaren arrakasta Indonesia guztira zabaldu eta Djakartan, Sukarno presidentearen aurrean jotzera iritsi ziren. Koxkortzen hasiak ziren eta Tielman gaztetxoak doinu ausartagoetara salto egin zuten. 1951. urtean Elvis Presley, Little Richard, Bill Haley, Fats Domino, Chuck Berry eta Gene Vincent-en kantuen moldaketekin hasi ziren. Indonesia osoan bira egitea eskaini zien gobernua, baina kondizio bat jarri zien, Herbeherar nazionalitateari uko egin eta Indonesiara onartzea. Herman Tielman-ek ez zuen onartu eta 1957. urtean bere familia osoarekin bere jaioterrira itzuli zen.

herbeheren konkista

Herbeheretara iritsi zirenean, jantzi tropikalez betetako maleta txikiak eta musika instrumentuak soilik zuten ekipai. Aita, guda heroia izanagatik, militarren eskutik neguko jantziak lortu zituen. Breda hirian, ur kanal batetan lotutako barku-etxe bat izan zen Tielman familiaren lehen etxea. Janek taldea utzi eta lanean eta ikasten hasi zen. Azal iluneko 4 anaiak ordea, iritsi bezain pronto hasi ziren berriro musika jotzen. The Tielman Brothers edo The 4 T's izenekin probintzia osoko dantzaleku eta taberna zulotan hasi ziren euren rock'n'roll doinu exotiko eta biziak erakusten. Kantu propioak sortu eta estilo propioa garatu zuten. Andy, gitarjolea, Bruselases ezagutu zuen neska batekin ezkondu zen. Tielman anaien soinu banda izan zuen ezkontz gaueko festa ostean, sute batekin, instrumentu eta materiale guztia suntsitu zuen. Andy-ren emaztearen aitak, AEBtan musika instrumentu berriak erosi (horien artean Gibson kitarra bat) eta amplifikagailu eta soinu ekipo berri bat oparitu zien. Bat batean, eta fenix hegaziaren moduan Tielman anaiak errautsetatik birsortu eta sekulako arrakasta lortu zuten. Hainbesterako, telebista alemaniarretik hotsegina eta 1958. urtean "Paprika" izeneko musikalerako gonbidatu zituela. Urte berean euren lehendabiziko singlea grabatu zuten. Bi kantuak bihurtu ziren Herbeheretako pop historiako arrakastatsuenetakoak: "Record Hop"-en erritmo dantzarria eta "Swing it up"-en erakusten zuten kitarra eta ahots abilezia nazioarteko izan bihurtu zituen. Herbeheretako telebistak, zuzenean jotzeko hotsegina eta ez zuten aukera pasatzen utzi. Herbeheretako ikusle hotz eta serioak aho bete hartz utzi zituzten bertan antolatu zuten r'n'r festarekin. Telebista kateak kritika ugari jaso zuen oihanetik zetozen basatien agerpenagatik. Guraso elkarteek, euren seme-alabentzat eragin ezkorra zirela esan zuten... eta hain zuzen ere, horrek bultzatu zituen lau beltzaran hauek, ilehori gazteen idolo berriak izatera. 1963 urtean Jane berriro elkartu zen anaiekin. Ordurako Andy oso ezaguna egin zen kitarra jotzeko zuen modu ikusgarriagatik. Gibson eta Fender gitarrak erabili zituen 1966. urtean Vox kitarra bitxi bat lortu zuen arte. Gitar bitxi honen doinuak iraultza berria suposatu zuen Tielman anaien musika estiloan. Garage doinu berriekin, ordura arte jotako rockabilly soinuekin uztartu zituzten. Hamarkada berriarekin, hippien agerpenarekin eta dantzaleku eta zuzeneko musika jotzeko aretoen desagerpenarekin, taldeak indarra galdu zuen. Zuzenean jotzeari utzi zioten. Gerora bildu dira tarteka, baina guri interesatzen zaigun taldea 1971. urtean amaitu zela esan genezake.

the tielman brothers



THE TIELMAN
Totally Tielman



ohianetik etorri zen rock'n'roll basatia
rock'n'roll that came out of the jungle



the sailor's sons

The Tielman Brothers' story starts in Surabaya. Around 1945, Herman Tielman, a captain in the Royal Dutch Indonesian Army, was released from a Japanese concentration camp and went back home to Surabaya. And there he started passing on his enthusiasm for music to his five children (Reggy, Ponthon, Andy, Loulou and Jane). They learnt Indonesian folk songs and dances and put them on at their father's supper parties. But Herman liked more than Indonesian folk, he also loved new, happy sounds. Sailor as he was, he knew how to look around ports for merchandise and quickly found instruments imported from abroad. He gave each of his children an instrument: a double bass for his son Ponthon, a banjo for Reggy, drums for little Loulou and a guitar for Andy. Jane, the only girl, had to make do with her beautiful voice. They quickly started playing at their father's parties. Shortly after that, they started traveling to other towns to play. They used the name The Timor Rhythm Brothers at many places on the island and toured with De Wanna's, The Ramblers and The Skymasters, bands from the Netherlands.

On the 29th of December, 1949, Indonesia became independent. The Tielman family was successful throughout Indonesia and they even played for President Sukarno in Djakarta. They began to grow as musicians and started playing more daring music. In 1951 they started doing Elvis Presley, Little Richard, Bill Haley, Fats Domino, Chuck Berry and Gene Vincent cover versions. The government offered them a tour of the whole of Indonesia, but with one condition: they would have to give up their Netherlands nationality and become Indonesian. Herman Tielman didn't accept the condition and, along with his whole family, returned to his country of birth in 1957.

conquering the Netherlands

When they reached the Netherlands, their only baggage was small suitcases full of tropical clothes and their musical instruments. Thanks to their father being a war hero, the military gave them winter clothes. The Tielman family's first home was a barge on the canal that goes through Breda. Jane left the group and started working and studying. The dark-skinned brothers, however, started playing music as soon as they arrived. Using the names The Tielman Brothers and The 4 T's they travelled all over the province to dance halls and pubs with their exotic, lively rock 'n' roll. They wrote their own songs and also developed their own style. Andy, the guitarist, met a girl in Brussels and they got married. The Tielman Brothers provided the sound track for the wedding banquet, but afterwards a fire destroyed all their equipment. Andy's wife's father bought them new instruments in the States, including a Gibson guitar, and gave them new amplifiers and a sound system. All of a sudden, like a phoenix out of the flames, the Tielman brothers rose up again and became hugely successful. They were so successful that German television called them and invited them to appear on "Paprika" in 1958. That year they also recorded their first single. Two of their songs became among the most successful in the history of Netherlands pop: "Record Hop" with its dance rhythm and, with "Swing it up", their vocal and guitar skills gave them international success. Netherlands television called them to play live and they didn't let the opportunity pass. They astonished the cold, serious Netherlands spectators with the rock'n'roll party they put on. They received a lot of criticism for the wild show they had brought from the jungle. Parents associations said that they were a bad influence on their children ... and that was exactly what made these four dark-haired boys the youth's idols. In 1963 Jane joined her brothers again. By that time Andy was very well-known because of his striking way of playing the guitar. He played Gibson and Fender guitars until he got a special Vox guitar in 1966. That special guitar's sound was a revolution in the Tielman Brothers' music. They incorporated new garage sounds to their rockabilly. In the new decade, with the arrival of the hippies, and dance halls and live music venues disappearing, the group's fortunes waned. They stopped playing live. They kept on getting together from time to time, but the group we really care about stopped playing in 1971.

BROTHERS

The Essential Collection



restaurante

Urepel

jateketa

Salamanca pasealekua 3
20003 Donostia
www.urepel.net · 943 42 40 40

www.siazgetaria.com

hotel

saiazgetaria HOTELA

T 943 140 143 E info@siazgetaria.com W www.siazgetaria.com

esan nahi duzuna...

... nahi duzun hizkuntzan

11itzulpen

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala

www.11itzulpen.com

design: www.cabmedia.com

EDIZIOAK ETA INPRESIOAK OROKORREAN

EDITING AND PRINTING IN GENERAL


Inprimakiak, katalogoak, liburuak, liburuskak, aldizkariak, aurreinpresioak
Forms, catalogues, books, brochures, magazines, preprinting

espacegrafic Pol. Ind. C/G, Nº 11 · 31192 Mutilva Baja · Navarra · Spain
Telf. 34 948 23 93 36 · Fax. 34 948 23 82 16
www.espacegrafic.com
e-mail: info@espacegrafic.com



scanning






photography / argazkiak: juancarhernandez.com
make-up & hairdress / makillajea eta orrazkera: [estibaliz zabala](http://estibaliz.zabala)
model / modeloa: [nagore mendikote](http://nagore.mendikote)
clothes / arropak: www.nerealurgain.com

MY JOK LE CLASH




MY JOK enpresaren zuzendaritzan 7 urtez kolaboratu eta gero, Maiana Agorrody-k eta Jokin Etcheverria-k orain bakarka lan egingen dute.

After collaborating for 7 years in MY JOK, Maiana Agorrody and Jokin Etcheverria will work by themselves from now on.



portuko rampi



Patakon piratak hala zioen: "daukenari kendu ta ezdakarnari emon". Usadioak ere badio, Patakon eta bere gizon-emakumeek, gure kostaldeko leku ezezagun batetako kobazulo batetan ezkututzen zituztela altxorrak.

Ez da legenda bat. Kaioen karrankak gidatuta topatu dugu kobazuloa. Eta bertan gordetzen den altxorra ikusi dugu: muraletz betetako paretak, skate ranpak, musika kontzertuak eta beste arte jarduera anitzak. Estatu independentea osatzen dute. Hippy usainik ez duen autogestio filosofiari jarraiki eta sorkuntza iturri nagusi gisa, euren behar eta nahietara eraiki dute kostaldeko pirata hauek "secret spot" ezkutu hau. Santimamiñe garaikide honetan ez da krisirik esistitzen. Piratek dira. Azala tatuajez apainduta eta nagusirik ez duten gizasemeak. Goizean itsasoaren kresala usaindu eta portuko maldetan zehar ibiltzen direnak. Hemen ez da bulegorik, ez telefonorik, ez subentzioetatik bizi den balizko proiekturik. Piratak dira. Burtsan, bankuetan, administrazioetako eserleketan, multinazionalen kontseiluetan dabiltzanei esaten diegu askotan pirata. Ez dute piratetik ezer ordea. Kobazulo honetan biltzen direnak piratak dira, besteak... putakumeak.

The pirate Patakon is said to have declared the following: "Take from those who have and give to those who don't". Legend also has it that Patakon and his men and women usually hid their treasure in a secret cave at an unknown spot on the Basque coast.

It's not a legend. Guided by the screeching of the seagulls, we've found the cave. And we saw the treasure hid there: walls filled with murals, skate ramps, concerts and many other types of artistic endeavours. They form an independent state. Based on a hippy-free philosophy of self-organisation with creativity as the principal font of inspiration, this group of costal pirates have built their hidden secret spot to suit their needs and desires. There is no crisis in this contemporary Santimamiñe. They are pirates, tattooed skins and they take orders from no-one. They smell the sea-spray in the morning and move around the slopes of the port. Here there are no offices, telephones, no supposed projects living off subsidies. They are pirates. We often label bankers, speculators, stock exchange dealers, multinational company executives, elected public representatives, etc. as pirates. There is absolutely nothing pirate about them at all. The real pirates are the ones who in this cave. The others... are bastards.





ego gutxiago /
lantalde gehiago

less ego /
more teamwork

the balde .net

atzo, gaur eta bihar **klik bakarrera!**
yesterday, today and tomorrow in **just one click!**


the balde zenbakiak oso-osorik ikusteko aukera izateaz gain egunero topatuko duzu proposamen berri eta interesgarriak.

Arteziak sail berrian gainera parte hartu eta zure txokoa izan dezakezu.

Check all previous the balde numbers.

New contents everyday.

Be a part of the balde in the new Arteziak project.



ENTZUN! 15€ liburua + CD
59. zenb. - 2009/2010

**MIKEL LABOA
BERRI TXARRAK
DETROIT SOUL CITY
MASKARAK ETA ROCK&ROLLA
NORIEGA, WELCOME TO THE JUNGLE
ANARI · R&B ZURIA, LONDRES-GASTEIZ
DELOREAN · SST RECORDS · SIXTY SEXERS
AUDIENCE · THE CRAMPS · MICHAEL JACKSON
MYSPEACE TA DESLOKALIZAZIOA · EUSKAL RAP · KENZAZPI
BIZARDUNAK · THE USKI'S · INOREN ERO NI · AKAUZAZTE
EUREKA HOT IV · ERTZ, 10 URTE · GOSE · ROY LONEY & SEÑOR NO
LOAN · HARROBI · MIKEL URDANGARIN · BIOC
..... ORREAGA 778 · U.K. BILL · VICE PRESIDENTES**

+CD GOSE · DELOREAN · HARROBI · U.K. BILL · MOD TIME
BRAND NEW SINCLAIRS · THE USKI'S · THE SPARTEENS
BIZARDUNAK · HOEY & THE MUSSELS · AUDIENCE · PIZTIAK
WILLIS DRUMMOND · MEMO · PAM · R

Entzun! disko-liburua salgai!

Edizio mugatua.

Egin zaitetz harpide edo
egizu zure erreserba
entzun@entzun.com-en
edo 948121976
telefonora deituz

15€

BILDUMA 2009
ENTZUN!

01 GOSE
Surik bai? 04'13

02 DELOREAN
Deli 04'39

03 HARROBI
Deabruaren zortea 03'07

04 U.K. BILL
Paradisu sekretua 02'36

05 MOD TIME
All the morning 02'41

06 BRAND NEW SINCLAIRS
Love song 04'22

07 THE USKI'S
Katuek bezala 02'26

08 THE SPARTEENS
Eguntentia 05'34

09 BIZARDUNAK
Shane MacGowan's
Basque Paddys 03'05

10 HOEY & THE MUSSELS
Free Again 02'42

11 AUDIENCE
Wide Man 04'34

12 PIZTIAK
Bafor Bat Hodeizintan 04'48

13 BERRI TXARRAK
Jainko atea 05'23

14 SIXTY SEXERS
Zyklon Birika 04'13

15 WILLIS DRUMMOND
Haustura (bizi berri bat) 03'51

16 MEMO
La alegría de molestar 03'53

17 PAM
Lurrunetan 04'07

18 R
Uneak 04'55

D-550/97 **disc** SGAE



real dolls





FRAGILE

THIS
END
UP

PAY NO
ATTENTION
TO THE LITTLE MAN
BEHIND THE SCREEN





Ovidiok idatzita zituen mitoen artean, Txipreko uhartean bizi zen Pygmalion-ek egin zuen panpinarena jasotzen da. Panpinari, Galatea izena jarri zion. Hain harro zegoen bere sorkuntzaz, ezen egunero jaten ematen, uretan garbitzen eta bere ohean sartzen baitzuen. Ez zen denbora asko pasa Pygmalion-ek Galatearekin "larrutan" egiten hasi zen arte. Afrodita jainkosak, maiatsun hura ikustean, Galatea panpinari bizitza eman zion eta hezur-haragizko emakume bihurtu zuen.

Euren itsas bidaia luzeetan plazerra ematen zieten "dame de voyage" delakoa alboan zeramaten mariñel frantziarrek edo eta "seemannsbraut"-en konpainiaz gozatzen zuten itsasgizon alemaniarrek ere behin baino gehiagotan erregutuko zioten Afroditari Galatearekin eginikoa euren oihalezko maitaleekin errepikatzea. Inork ez du bere idatzietan jaso berriro halakorik gertatu denik. Akaso horregatik, mirariari itxaron beharrean, panpin horiek geroz eta "egiazkoagoak" egiten jarraitzen dugu.

*Real Dolls: argazkiak by Robert Huber
Getxophoto 2010*

Amongst the myths written by Ovid is the story of the doll made by Pygmalion who lived on the island of Cyprus. The doll was named Galatea. He was so proud of his creation that he fed, cleaned and put the doll to bed every night. It wasn't long before Pygmalion started having sex with the doll. The Goddess Aphrodite, on seeing this, brought the doll Galatea to life and turned her into a real flesh-and-bones woman.

French sailors who carried with them their "dame de voyage" on long sailings or the German mariners with their "seemannsbraut" for company must have more than once begged Aphrodite to make their cloth companions real as she had once done with Galatea. It has never been recorded whether anything of the sort ever happened. Maybe that's why, instead of waiting for a miracle, humans are making dolls that are becoming more and more 'real'.

*Real Dolls: photos by Robert Huber
Getxophoto 2010*



broken chinese toys

70% of all the toys made in the world are manufactured in China, principally in the factories to be found in the province of Guangdong. Most of the workers in these factories that produce goods for multinational toy companies are women. No prizes for guessing what their hours and conditions are like. However, something seems to be changing. Despite the existing law of silence and the desperate repression suffered, this year has witnessed revolt and riots in many Chinese factories in favour of better rights for workers. The fuse has been lit...



apurtutako jostailu txinatarrak



Munduan fabrikatzen diren jostailuen % 70 Txinan egiten dira, nagusiki Guandong probintzian kokaturik dauden lantegietan. Jostailuen multinazionalentzako lan egiten duten enpresa horietako langile gehienak emakumeak dira, eta irudika ditzakezue haien lan orduak eta baldintzak. Hala ere, zerbait aldatzen ari da. Isiltasunaren legea eta errepresio latza pairatu badute ere, aurretik erretatik eta istiluak izan dira Txinako hainbat lantegitan lan baldintzen hobekuntza aldarrikatzeko. Metxa piztu da...





air doll

Hirokazu Kore-eda zuzendariaren azken lana, *Kûki Ningyô (Air Doll)* Yoshiie Göda komikigilearen manga batean dago oinarrituta. Panpin puzgarri baten bizitzaren eskutik, hiriko egunerokotasunaren bakardadea, denboraren iragana eta fantasia gauzatuen inguruko hausnarketa eder bezain latza erakusten digu zine zuzendari japoniarrak.

